



Kontratazio
publiko elektronikoa
Contratación
pública electrónica

Kontratazio Publiko Elektronikoaren abantailak

www.contratacion.info
www.euskadi.net/kontratazioa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

06

Kontratazio Publiko Elektronikoaren abantailak




Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kontratazio Publiko Elektronikoa abian jarri duen lehenengoa da Estatuan. Hala, aurrea hartu dio Europar Batasunak administrazio kontrataziorako emandako 18/2004/EE artetzarauak dioenari, 2007. urtea amaitu aurretik ezartzea gomendatzen baitu.

Euskal enpresek denbora gutxi barru Administrazio Publiko guztiek izango dituzten kontratazio formulak probatzeko eta horietara ohitzen joateko aukera izango dute.


Prozedura klasikoa eta prozedura elektronikoa alderatzen dituen grafikoa

Teknologiari begira, Eskaintza Elektronikorako Aplikazioak Eskaintzaren ekintza gehien prozesamendu telematikoa ahalbidetzen du, eta gainera, abantaila handiak eskaintzen ditu, erantsitako grafikoen ikus daitezkeen bezalaxe.

Prozedura Klasikoa



Prozedura Elektronikoa



Prozedura elektronikokoaren abantailak

- Eskaintza egiteko etengabeko aukera. Eskariak, idazkiak eta jakinarazpenak erregistro telematikotan aurkeztu ahal izango dira, urteko egun guztietako 24 orduetan, jaiegunetan ere bai.
- Eskaintzak prestatzeko eta akatsak zuzentzeko denbora gehiago. Zure eskaintzaren izapideak zeinahi unetan egin ahal izango dira, Lizitazio epearen barnean.
- Prozesamendurako denbora murriztu egingo da.
- Administrazio agiriari prestatzean, lana eta izan daitezkeen akatsak murriztuko dira.
- Eskaintzak eta zuzenketak aurkezteko eta irekiera ekitaldietan parte hartzeko ez da lekualdatu behar izango. Hala, desagertu egingo dira lekualdatzeetan gerta daitezkeen atzerapenak edo Eskaintza egiteko prozedura tradizionalen gerta daitezkeen gorabehera guztiak.
- Posta eta mezularitza kostuak murriztu egingo dira.
- Internet bitartez irekiera ekitaldietan modu birtualean parte hartzeko aukerari esker, lehia zertan den hobeto ezagutu ahal izango da.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro



Kontratazio Elektronikoak onurak ekartzen dizkie Euskal Administrazioari, funtzionarioei, enpresei eta oro har gizarte osoari.

Eredu erraz, erabilgarri eta segurua



Helburuak

- Eraginkortasuna areagotzea eta kudeaketaren kostuak murriztea.
- Kontratazioan eta erosketan publikoan parte hartzen duten Administrazio zerbitzuentzako eta enpresentzako zerbitzu maila handiagoak garatzea.
- Kontratazio prozesuak irizpide homogeneouskoekin bideratzea; eta, era berean, arauak eta prozedurak errespetatzeko maila osagarriak eskaintzea.
- Lehia sustatzea, komunikazio ireki eta eragingarri baten bitartez. Hartara, enpresa guztiek Euskal Administrazioaren negozio aukerak ezagutu eta horiei etekina aterata ahal izango diete.
- Administrazioaren indarrari etekina ateratzea, erosketan elektronikoa eta Sinadura Elektroniko Aitortua Informazioaren Gizarteari buruzko Euskadiko Planeko funtsezko bi osagai moduan bultzatzeko.



Ofizialean izena emanda duzula ziurtatuko duen egiaztagarria aurkeztetik salbuetsita egongo zara. Aipatutako egiaztagiri hori baduzula, indarrean dagoela eta baita bere edukia ere informatika aplikazio baten bitartez aztertuko dira.

- Eskaintza Elektronikoak zuzentzeko aukera, Administrazio Publikoaren Kontratuaren Legean jasotakoaren arabera (ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako testu bategina).



Enpresentzako onura zuzenak

- Sarbide bakar, erraz eta eroso bat sortzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin negozioa garatzeko aukera guztietara sartzeko.
- ETEek parte hartzeko dituzten oztopoak murriztea, baldin eta noizbait Administrazio Publikora hurbiltzeko zailtasunak badituzte.
- Kontratazio ziklo osoa modu digitalean tratatzeko aukera eta gaitasuna; izan ere, ondokoetarako bitarteko digitalak ditu:
 - Eskaintzen iragarkietara sar daiteke.
 - Lehiaketetarako behar diren agiriak modu erraz eta erosoan eskuratzen dira.
 - Bitarteko elektronikoen bitartez igortzen dira eskaintzak.
 - Esleipenak jakinarazten dira.

Formazioa eta Euskarriak Onura osagarria

Kontratazio Elektronikokoan parte hartzen duten bitarteko digital ugari berri-berriak dira. Horregatik, horiek zabaltzeko, Eusko Jaurlaritzak ahalegin berezia egingo du formazioari eta euskarriari begira, 3.200 enpresa baino gehiagorentzat. Enpresa horiek, hain zuzen, Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emana dute, gaur egun. Horretarako, formazio eduki bereziak prestatu dira, eta honako bi mota hauen arabera irakatsiko dira:

Aurrez aurreko formazioa

Eusko Jaurlaritzaren edo Erakunde kolaboratzaileen ikasgeletan, formazio kanpaina zehatz batzuen bitartez. (Datak eta tokiak bere garaian jakinaraziko dira).



Internet bidezko formazioa



www.contratacion.info
www.euskadi.net/kontratazioa

"Probatzeko eta horretara ohitzen joateko aukera" bat, enpresentzako inolako kosturik gabe

Eskaintza Elektronikorako behar diren elementu guztiak, formaziorako Sinadura Elektronikokoaren egiaztagiriarekin lotutakoak barne, doan emango zaizkie enpresa eskaintzaile guztiei.

Berandu baino lehen, Kontratazio Publiko Elektronikorako Sistema Foru Aldundiei eta Udalei eskainiko zaie, hala nahi badute, eskura dezaten. Beraz, enpresek izandako eskarmentua oso erabilgarria gertatuko zaie Administrazio guztiei beren zerbitzuak eskaintzerakoan.

Kontratazio Publiko Elektronikorako Eredua garatzeak aurrerapauso logiko eta naturala dakar Administrazio zerbitzuen digitalizazioari begira. Horrenbestez, Eredua hori ezarri gero, "probatzeko eta horretara ohitzen joateko aukera" izango dute enpresek; izan ere, etorkizunean Administrazio Publiko guztiek erabiliko duten bitartekoa da.

